

JATETXE ETA TABERNEN  
PLANGINTZA OIARTZUNEN  
(Merkataritzan euskaraz bizi)

*Sakontze Egitasmoa*  
(J. Inazio Marko Juanikorena)  
*HIZNET*  
**Iglesias Alvarez, Raul**

## AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	3
2. Oiartzunen euskararen egoera merkataritza esparruan.....	5
3. Hitzarmena Oiartzungo Udalarekin.....	6
4. Egitasmoaren ezaugarriak.....	7
5. Helburuak .....	8
6. Metodologia.....	9
7. Faseak .....	10
8. Zerbitzuak .....	11
8.1. Merkatarientzako euskara ikasteko dirulaguntzak.....	11
8.2. Doako itzulpen eta maketazioa zerbitzua .....	12
8.3. Hizkuntza aholkularitza .....	13
8.4. Errotulaziorako dirulaguntzak .....	15
• Kanpo errotulazioa	
• Barne errotulazioa	
8.5. Irudi korporatiboa euskalduntzeko dirulaguntzak .....	21
8.6. Publizitatea euskaratzeko laguntza .....	22
8.7. Web orria euskaratzeko dirulaguntzak .....	23
8.8. Helbideak euskaratzeko baliabideak.....	24
8.9. Abizenak euskal idatzira egokitu.....	25
8.10. Ordenagailua euskaraz.....	28
Bibliografía .....	29
Eranskina .....	30

## JATETXE ETA TABERNEN PLANGINTZA OIARTZUNEN (Merkataritzan euskaraz bizi)

### 1. Sarrera

Zerizuen sektorearen komunikazio-estrategien artean, euskararen erabilera oinarrizko zutabeetariko bat da, kalitatearen adierazle nagusienetarikoa izateaz gain. Udalak, horren jakitun, “*Merkataritzan euskaraz bizi*” egitasmoaren barruan hizkuntzaren inguruko materiala, zerbitzuak eta aholkularitza eskaintzen jardun du. Eta katalogo berri hau zuen beharrak asetzeko eta zuen eskaerak arintzeko ahaleginaren ondorioz sortutako tresna bat gehiago da.

Esku artean duzun plangintza zure establezimenduko euskararen erabilerarekin loturiko aholkularitza eta zenbait produktu eta zerbitzu eskaintzen dizkizu. Zalantzarik gabe, eskaintza hau ezinbestekoa gertatuko zaizu, bai eguneroko lanean, oro har, bai eta bezeroekiko harremanetan ere.

Katalogo bidezko zerbitzu hau erabilerraza, eroso eta batez ere praktikoa gertatuko zaizu. Izan ere, urte osoan zehar izango duzu erabiltzeko aukera. Eta, beraz, zuk erabakiko duzu zer, noiz eta nola nahi duzun. Eskaerak zeure establezimendutik bertatik egingo dituzu, mugitu beharrik gabe. Gainera, zuk nahi beste erabili ahal izango duzu zerbitzu hau.

Katalogo honetan eskaintzen diren produktu eta materialak guztiz doan dira. Hauek eskuratzeko baldintzak edota eskaintzen dituzten abantailak *Baldintza orrian* aurkituzko dituzu modu argian.

Behar dituzun produktu eta zerbitzuak eskatzeko, Eskaera orriak dituzu. Bete ondoren, hobekien datorkizun moduan bidali ahal izango dituzu Euskara Zerbitzua.

Martxoaren 20an, herriko 12 komertziok, euskararen aldeko hitzarmena sinatu zuten udalarekin. Eskualde mailako 'Merkataritza Euskaraz' kanpainaren barruan kokatzen da ekimen hau.

1997an eskualdean 'Merkataritza Euskaraz' kanpaina hasi zen eta duela lau urte, Euskara Zerbitzua hitzarmen bereziak egiten hasi zen zenbait komertzioekin. Martxoan sinatu dira azkeneko hitzarmen bereziak, hizkuntza egoera onena eta herrian erreferentzia diren komertzioekin.

Hitzarmenak borondatezkoak dira eta komertzio bakoitzak aukeratzen duen mailakoa. Besteak beste, komertzioetako langileen euskara trebatzeko ikastaroak egitea, errotulazioa euskaraz jartzea, bai barruko eta kanpoko harremanetarako lehen hizkuntza euskara izatea edota bezeroekin harremanak gure hizkuntzan egitea izan dira herriko komertzio hauek hartu duten konpromisoa.

Hainbat sinatzaile izan ditugu. Hemendik aurrera jarraipena egingo da udaletik hitzarmena sinatutakoekin eta datorren urtean beste hiruzpalau komertzio berriekin hitzarmena egiteko lanean ari dira.

Hitzarmenean sartutako komertzio hauez gain, herrian dauden gainerako komertzioei ere, Euskara Zerbitzutik langileen euskara trebatzeko eta hobetzeko ikastaroak, errotilazioa euskaraz jartzeko eta gainerako dokumentazioa itzultzeko zerbitzua eta aholkularitza ere eskaintzen zaie.

## **2. Oiartzunen euskararen egoera merkataritza esparruan**

Oiartzunen euskararen egoera ez da berdina establezimendu guztietan. Beraz, dianostikoa egiteko ondoko *esparru* hauek kontuan hartu behar ditugu:

- Kanpo errotulazioa (nagusia, ordutegia, merkealdi kartelak, etab.).
- Jendaurreko barne errotulazioa (ageriko idazkiak eta oharrak, denda kateko idazkiak).
- Kanpo erabilerarako elementuak (zigiluak, emate agiriak, poltsak, kutxako tiketa...)
- Publizitate arloa.
- Merkatarien euskara maila.

Horretarako galdesorta bat prestatuko da.

### 3. Hitzarmena Oiartzungo Udalarekin

Oiartzungo Udalak merkataritza esparruan plangintza bat prestatu du euskara sustatzeko. Egitasmoa “*Merkataritzan euskaraz bizi*” deritzo eta merkataritza sektoreak eta udalerrian kokaturiko ostalaritza sektoreak zuzentzen dute. Hainbat establezimenduei jakinarazi zaie proiektu honen izaera.

Udalerriko merkatariek alkateak zuzenduriko gutun bat jasoko dute eta honetan kanpainaren berri emango zaie. Geroago inkesta bat pasako zaie sektorearen egoera ezagutzeko. Helburuak ondoko hauek dira: egoera soziolinguistikoaren egoeraren diagnostikoa, premiak eta aukerak identifikatuz; euskararen erabilera sustatu merkataritzaren eskaintzaren kalitatea hobetzeko; euskara zerbitzuaren bitartez merkataritza esparruaren eta udalaren arteko lankidetzak hitzarmena ezarri.

Proiektuaren lehenengo fase honetan datuak jasoko dira eta euskararen zerbitzu eskaintza aztertuko da; bigarren fasean akordioak egingo dira eta hitzarmenak izenpetuko dira. Udalak dirulaguntzak eskainiko ditu euskara ikasteko eta gainera, 2500 € eskainiko die euskaltegian matrikulatutako merkatariei. Itzulpen eta maketazio doako zerbitzu bat izango dute eskuragarri ondoko posta elektronikoa: [posta@begira.com](mailto:posta@begira.com); errotulazioa aldatzeko dirulaguntzak, euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara hiztegiak.

Hitzarmenak ondoko establezimendu hauek izan da:

Cafetería Beti-Auro  
Toki Alai Taberna  
Bar Miren  
Bar Toki Ona  
Albistur Jatetxea  
Asador Nuevo Atamix  
Cafetería Mendiri  
Intxixu Erretegia  
Iriberrí Restaurante  
Kapeo Jatetxea  
Restaurante Lintzirín  
Restaurante Andoni Gaztelumendi  
Restaurante Bar Pikoketa  
Restaurante Esnoiz  
Matteo Jatetxea  
Tolare Jatetxea  
Zuberoa Jatetxea  
Olaizola Jatetxea  
Restaurante Lusha

#### **4. Egitasmoaren ezaugarriak**

Egitasmo honek ondoko ezaugarri hauek ditu:

- Erabilera ardatz
  - Bai ahoz bai idatziz.
  - Helburuak neurtu eta zehaztu behar dira.
- Euskaldunak protagonistak: langile euskaldunen konpromisoa ezinbestekoa da.
- Adostasuna: filosofia parte hartzailea izan behar du planak.
- Borondatezkotasuna: ez da inor behartzen proiektuan parte hartzera.
- Izaera metodikoa, neurtua eta ebaluatua: planak helburu lorgarriak ditu erritmo orekatu bat izateko.

## 5. Helburuak


Proiektuaren *helburuak* ondoko hauek dira:

- Sektorearen egoera soziolinguistikoaren diagnostikoa egin, aukerak eta premiak identifikatuz.
- Euskararen erabilera sustatu denden eskaintzaren kalitatea hobetzeko.
- Udalaren eta lankidetzaren hitzarmenaren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatu, euskara zerbitzuaren bitartez.
- Udalak laguntzen eta zerbitzuen eskaintza egin.



## 6. Metodologia

Ondoko *eskema* hau jarraituko da:



## 7. Faseak eta lan esparrua

Bi fase jarraitu dira:

1. *FASEA*: banako bisitaldiak egin dizkiete establezimendu batzuei. Bisita hauetan ondoko hau egin da: proiektuaren aurkezpena, datuak jaso eta euskara zerbitzuen eskaintza aztertu.
  - Proiektuaren hasieran ematen den materialarekin *karpeta* entregatu.
  - Establezimenduaren egoera soziolinguistikoaren inguruko *datu bilketa*:
    - Arduradunen nahiz langileen euskara jakite-mailaren inguruko datuak.
    - Euskararen erabilera maila.
    - Euskararen erabilera sustatzeko sumatzen dituzten alderdi positibo nagusiak (aukerak) eta alderdi negatibo nagusiak (ahuleziak eta premiak).
  - Oiartzungo Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen inguruko eskaera zehatzak bildu.
2. *FASEA*: bigarren bisita honetan eskatutako materiala entregatu da eta hitzarmen batzuk sinatzea proposatu da.
  - Establezimendu bakoitzari, bere establezimenduaren ezaugarriak kontuan hartuta, konpromiso mota bat hartzea proposatuko zaio.
  - Bigarren bisita honetan, kanpo fenomeno pertsonalak, establezimenduei, hauek aurreko fasean eskatu duten materiala entregatuko die (itzulpenak, hiztegiak, etab.).

### *Lan esparrua*

- Proiektu hau Oiartzun kokaturiko taberna eta ostalaritza sektoreei zuzentzen zaie.
- Guztira 50 establezimendu sartzeko dira egitasmoa honetan.

## 8. Zerbitzuak

Zure zerbitzuak euskaraz eskaini nahi dituzun horrentzat prestatu dut katalogo hau, lagungarri izango zaizula pentsatuz. Jakin ezazu, beraz, Udaletako euskara zerbitzuetan behar duzun guztian izango gaituzula laguntzeko prest.

### 8.1. *Merkatarientzako euskara ikasteko dirulaguntzak*

“*Merkataritzan euskaraz bizi*” egitasmoaren barruan, 2500 euroko dirulaguntza eskaintzen die euskara ikastera doazen merkatariei euren ordezkari estabazimenduaz arduratzeko pertsona euskaldun bat kontratatzen badute ordezkapena egiteko. Gainerako baldintzak ondoko hauek dira:

- Gutxienez, egunean 2 ordukoa izatea, urria-ekaina bitartean.
- Ordezkoak kontratua izatea.
- Ordezkoa euskalduna izatea.
- Asistentzia %90ekoa izatea.

ENPLEGU ESKAINTZA osatuko du herriko taberna eta jatetxeetan lan egiteko prest dauden pertsonekin. Eskaintza hori merkatarien esku ipiniko da, ordezkaria kontratatzea errazteko helburuarekin.

## 8.2. Doako itzulpen eta maketazioa zerbitzua

Mota askotariko kartelak egingo dira (menuak, prezioen zerrenden letreroak,...) bai ta-mainari bai diseinuari dagokionez.



Kartel horiek eratzeko itzulpen zerbitzua ere emango da. Hau da, tabernariak testu txiki-  
ren bat itzuli behar izanez gero, zerbitzu hori egongo da eskuragarri ostalarientzat. In-  
formazio gehiagorako ikusi 8.3. puntua.

### 8.3. Hizkuntza aholkularitza

#### *Testu ereduak*

Behin eta berriz erabiltzen diren agirien euskarazko ereduak eskainiko dira: gutunak, ordainagiriak, fakturak, aurrekontuak, nominak...

#### *Hizkuntza eta terminologia kontsultak*

Euskaraz idazterakoan sortzen diren *zalantzak argitzen lagunduko dira*.

#### *Testu zuzenketa*

Euskaraz idatzitako testuak inolako akatsik ez izatea nahi baduzu, zuzendu egingo ditugu. *Zuk idatzia egin eta guk zuzendu*.

#### *Itzulpenak*

Eta ahalegindu arren, edozein arrazoi dela eta, zuk ezin baduzu testua euskaraz egin, *guk euskaratuko dizugu*.

- Testua motza bada, Euskara Zerbitzuan bertan itzuliko dizugu. Testua luzea bada, kasua aztertuko eta zer egin erabakiko da.
- Ahal bada disketean eta bestela makinaz edo letra txukunez idatzita ekarri beharko da.

#### *Hiztegiak*

Ostalariek eskuragarri izango dute ondoko hau:

- “*Menuak euskaratzeko argibideak*”ren txostena: liburuxka honetan erdarazko jakiak euskaratzeko aholkuak emango dizkiegu; esaterako, patatas a la riojana (patatak errioxar erara); mero en papillote (mero papillotean); pato a la naranja (ahatea laranja-arekin), etab.
- Honekin batera euskara-gaztelania eta gaztelania-euskarazko ostalaritza taberna emango diegu. Ikus. 1. Irudia.

1. Irudia. Ostalaritza Hiztegia

**EUSKARA-CASTELLANO HIZTEGIA**

**abakando** *Homarus gammarus*: bogavante

**abrikot** *Prunus armeniaca*: albaricoque

adobatu\* *erabil.*: marinatu

**afaldu** du (*Heg.*) edo da (*Ipar.*): cenar

**afari**: cena

**afrodisiako**: afrodisiáco

**aguakate**: aguacate

**ahabia** *Vaccinium myrtillus*: arándano

**ahamen**: bocado

**ahamenka**: a bocados

**ahardi**: cerda (hembra)

**ahari**: carnero

**ahate**: pato

**ahi**: papilla

**ahogozagarri**: sabroso; (*cosa*) que agrada a la boca

**ahogozatu**: saborear; paladear

**ahogozo**: buen gusto en la boca; sabor

aho-zapi\* *erabil.*: ahozapi; ezpainzapi

**ahozapi**: servilleta

**ahuntz** *Capra aegagrus*: cabra

#### 8.4. Errotulaziorako dirulaguntzak

##### ***Kanpoko errotulu nagusia***

Errotulua euskara hutsez jarriz gero (taberna, edaritegia, jatetxea...), kostuaren %50 ordainduko dizu Udalak. Dirulaguntza, gehienez ere, 300 eurokoa izango da.

##### *Baldintzak:*

- Errotulu nagusiak euskaraz bakarrik egon beharko du.
- Saltokiak Oiartzungo Ekonomia jardueraren erroldan azaldu behar du.
- Dirulaguntza behin bakarrik jaso ahal izango da.
- Dirulaguntza jasotzen denetik aurrera saltokiak errotuluak euskara hutsezkoak izan beharko ditu.
- Errotuluko testua zuzen idatzita egon beharko da.
- Izaera ez ofizialeko entitateek bakarrik jaso ahal izango dituzte dirulaguntza hauek.
- Errotuluan izen propioa agertzen bada bakarrik, ez da inolako dirulaguntzarik emango.
- Bateriaezinak izango dira kontzeptu honetan Udalak eman lezakeen dirulaguntza eta publizitatearen izenean errotulu beragatik enpresa batek eman lezakeena.

##### *Zer da diruz lagunduko dena*

Dirulaguntzak honako hauek jaso ahal izango dute:

- Errotuluak.
- Toldoak edo olanak.
- Ibilgailu komertzialen errotulazioa.

##### *Kontuan hartzekoak*

- Euskarazko kartelak edo kartel elebidunak jar daitezke. Beraz, taberna edo jatetxe batek errotulu bat baino gehiago jar dezake, bere fatxadak hala eskatzen badu.
- Ezin izango dira euskarazko errotulurako edo errotulu elebinerako dirulaguntzak jaso. Hautako bat aukeratu behar da.
- Ez du dirulaguntzarik jasoko txarto idatzita edo oker gramatikalik duen errotulurik.
- Euskara Zinegotziak, agertzen diren kasu berezietan edo hemen jaso ez den kasuren bat gertatzen denean erabakiak hartzeko ahalmena izango du.
- Udalak bere Euskara Zerbitzuaren bitartez, itzulpengintza eta aholkularitza zerbitzua eskainiko du doan, eta horren berri emango die intesdunei.
- Laguntzak emateko Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztutako eskaeren hurrenkera-aren arabera abonatu dira, betiere abonatu partida egonez gero.
- Establezimendua irekitzeko baimenaren jakinarazpenarekin batera, interesdunei gai honen inguruan lortu daitezkeen dirulaguntzen berri emango zaie. Errotuluak euskara hutsean edo elebitara jartzeko gomendioa emango zaie.
- Erabaki hau udaleko zerbitzu teknikoei, komunikabideei eta Oiartzungo elkarteei jakinaraziko zaie, erabaki honi zabalkundea eman diezaioten eta irekitzeko baimena jaso dutenei ere honen berri eman diezaieten.

### ***Barruko errotuluak***

Euskarazko testuari ematen badiozu lehentasuna (tokia, neurria, intentsitatea...) kostua-  
ren %50 ordainduko dizu Udalak. Dirulaguntza, gehienez ere, 300 eurokoa izango da.

#### ***Baldintzak:***

- Errotuluko testua zuzen idatzita egon beharko da.
- Izaera ez ofizialeko entitateek bakarrik jaso ahal izango dituzte dirulaguntza hauek.




Errotulu ereduak:

– *Kanpo errotulazioa*

- Errotulu nagusia.



- Ordutegia.



- Merkealdi kartelak.




- Bestelako idatzi eta oharrak.



**OPORRAK**  
irailaren 2tik 24ra  
itxita

**BERTAKO  
LEKAK**

- Denda kateko idazkiak.
- Zigiluak.




- Fakturak eta ordainagiriak.





- Emate agiriak.
- Poltsak eta biltzeko papera.
- Inprimaki pertsonalizuak.



- Loteria, zozketak.



- Itxita-Zabalik...



– *Barne errotulazioa*

Hainbat motatako errotuluak erabil daitezke; hona hemen *adibide* batzuk: Aldagela, Gizonezkoak, Andrazkoak, Argibideak, Arriskua, Arropazaindegia, Komunak, Bisitak, Botika-ontzia, Larrialdi irteera, Bisitak, Jantokia, Tiratu, Bultzatu, Jantokia, Itxaron gela, Gordailua, Beste atetik (ezkerrera), Beste atetik (eskuinera), Deitu gabe sartu, Ez erre eskerrik asko, Bulegoa, etab.




### 8.5. Irudi korporatiboa euskalduntzeko dirulaguntzak

Euskarazko testuari ematen badiozu lehenetsua (tokia, neurria, intentsitatea...), kostua-  
ren %50 ordainduko dizu Udalak. Dirulaguntza, gehienez ere, 300 eurokoa izango da.

Oiartzungo Udalak honako hauek hartzen ditu, besteak beste, irudi korporatiboaren  
elemntutzat:

- Gutun-azalak.



- Paperetako idazpurua.
- Bisita-txartelak.
- Identifikazio-zigilua.
- Inprimakiak: emate agiriak, fakturak...
- Produktuak biltzeko papera.
- Poltsak.
- Ibilgailuen errotulazioa.

#### *Baldintzak:*

- Testua zuzen idatzita egon behar da.
- Izaera ez ofizialeko entitateek bakarrik jaso ahal izango dituzte dirulaguntza hauek.
- Irudi korporatiboko elementuetan izen propioak agertzen badira bakarrik, ez da inolako dirulaguntzarik emango.

## 8.6. Publizitatea euskaratzeko laguntza

Postontzietara iristen zaigun publizitateak euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatu behar ditu. Hori dela eta, publizitateak euskara hutsean edo gutxienez elebiduna izan behar du. Honekin 3 gauza lortuko ditugu:

- Euskara zuzen, jator eta egokia gizarteratzeko euskarri ezin egokiagoa izan daiteke publizitatea. Ildo horretatik, kuantitatiboki zein kualitatiboki lagun diezaioke euskarari kalitatezko euskara ereduak sortu eta haiek bazter guztietara hedatuz.
- Diru iturri garrantzitsua da publizitatea, eta alde horretatik, euskarazko hedabideen hazkunde eta hedapenerako erabakigarria izan daiteke zeharo. Horrek ekar dezakeen guztiarekin (produktu hobeak, audientzia zabalagoak, eragiteko ahalmen handiagoa, erreferentzialtasuna, euskararen presentzia nabarmenagoa...).
- Euskara bera zuzenean edo zeharka sustatzeko ere balio dezake publizitateak. Euskararen beraren erabilera sustatzeko kanpainei buruz ari banaiz ere batik bat, ezin ahantz daitezke Euskaltegiek egiten dituzten kanpainak ez euskal hedabideak sustatzeko asmoz egiten direnak ez euskal produktuak, oro har, merkaturatzeko egiten diren komunikazio ekintzak.

Asko egin dezake publizitateak euskararen alde. Horretarako, *euskaldun profesional onak behar ditugu*, benetan euskaldun eta on izango direnak —ez baitauzkagu ia— publizitate agentzietan eta enpresetako komunikazio arduradun postuetan.

### *8.7. Web orria euskaratzeko dirulaguntzak*

Taberna, jatetxe, erretegi eta antzeko establezimenduek web orriak izanez gero, hauek euskaratzeko dirulaguntzak emango zaizkie. Kasu guztiak aztertuko dira eta batzorde eskudunak erabakiko du dirulaguntza hori ematea ala ez.

#### *Baldintzak*

- Establezimenduko informazio guztiak euskaraz egon beharko du.
- Ezin izango dute dirulaguntzarik lortu, merkatarizatik kanpoko helburuak dituzten enpresek: webgune pertsonala egiteko, eduki politiko edo sindikala ezartzeko, etab.

## 8.8. *Helbideak euskaratzeko baliabideak*

Euskararen estandarizazio prozesuan, herrietako kale izenak gutxien normalizatutako arloa dugu. Euskara batuaren historian, lehentasuna beste arlo batzuei eman zaie (aditzak, sintaxiak, terminologia, toponimia, etab.) baina, kale izenen normalizazioari ez zaio ekin, besteak beste, honako arrazoi hauengatik:

- Udal bakoitzeko eskumen delako.
- Udal bakoitzean ordezkari politiko oso desberdina delako.
- Kale izenak normalizatzeko, historia eta filologia aldetik egin beharreko lan handiak finantzatzeko baliabiderik ez dagoelako.
- Oro har, ez zaiolako arlo honi behar duen garrantzirik eman.

Egia esan, kale izenak euskaraz zuzen erabiltzeak izugarritzko garrantzia dauka, nahiz eta kontrakoa iruditu. Orain arte, erdararen gotorlekua izan dira eta, nahiz eta euskaraz hitz egin edo idatzi, kale izenak, askotan, erdara hutsean jartzen dira, ez ditugulako euskarazko jatorrizko izenak ezagutzen, erdarak sorturiko erdal izendapenak besterik gabe onartzen ditugulako, edo ez ditugulako izenak ezagutzen.

Euskara normalizatu nahi badugu, kale izenak berreskuratzeari eta euskalduntzeari ekin behar diogu.

Hainbat herritan, honen beharraz jabetuta, Euskaltzaindiari lan honi ekiteko agindua eman diote eta, gaur egun, 30 bat herritako kale izendegiak (Berango, Eskoriatza, Barakaldo, etab.) normalizatuta daude.

Kale izenen erabilerari buruz, bi gai zehaztu behar dira: izenak osorik edo laburtuta izatea eta euskara hutsean ala elebidun idaztea. Esaterako:

### *a) Izenak osorik edo laburtuta idatzi*

Ganekogorta kalea, 12-4. ezk.  
Zabalburu plaza 2-solairuartera  
Zumalakarregi etorb., 8- Behea

### *b) Kale izenak euskara hutsez edo bi hizkuntzetan idatzi*

#### *Euskara hutsean*

Zumalakarregi, 8-Behea  
Areitza doktorea, 10-8. B

#### *Bi hizkuntzetan*

Kale nagusia-Gran Vía 24-5. B  
Goienkale-Somera, 6

Horrez gain, helbideei buruzko liburuxka bat emango zaie tabernariei. Honetan nahitazko informazioa eta hiztegia bilduko da.



2. Irudia. Helbideak euskaratzeko beharrezko hiztegiaren adibidea

**GAZTELANIA-EUSKARA**

**acequia:** ubide (ub.); erreten  
**afluente:** ibaiadar  
**afueras:** aldiri (aldr.)  
**alameda:** zumardi (zum.); zumarkale  
**aldea:** herrixka (herx.)  
**apartamento:** apartamentu (aptu.)  
**arboleda:** zuhaizti  
**arrabal:** aldiri; errebal (erreb.)  
**arroyo:** erreka (err.)  
**atajo:** lasterbide (lastb.)  
**autovía:** autobia  
**autopista:** autobide (A.)  
**avenida:** etorbide (etorb.); hiribide (hirib.)  
**bajera:** etxabe  
**barranco:** troka (tr.); trokarte; sakan  
**barriada:** auzo (a.; auz.); auzune (auz.); auzotegi  
**barrio:** auzo (a.; auz.); auzune (auz.); auzotegi  
**bloque:** etxe sail; bloke (bl.)  
**brazal:** ibaiadar  
**bulevar:** bulebar  
**cala:** senaia

## 8.9. Abizenak euskal idatzira egokitu

Tabernari eta zerbitzari askok abizen euskaldunak izango dituzte. Hautako batzuek ziur aski gaur egungo idazkerara egokitu nahi izango dute (*Euskaltzaindiak gomendatutako idazkerara*).

### **Zergatik normalizatu abizena?**

Historiaren zenbait gorabehera dela medio, euskarak ez du tokirik izan administrazio idazkeran. Ondorioz, euskal hitzak gaztelaniaren ortografietara egokitu zituzten garaiko eskribauek.

Horren eragin nabarmena, euskal toponimoetan dugu eta, ondorioz, EUSKAL ABIZENETAN.

Hortik, esate baterako, “Etxebarria” bezalakoak “Echevarría” ikusten idatzita nonahi, nazioarteko hizkuntza-gomendioen aurka.

Zure abizenetako bat horrelakoa bada, eta euskaraz ofizialdua izan nahi baduzu, uste baino errazagoa da egin beharreko bidea. Gainera, gu gaituzu laguntzeko.

### **Zein abizen alda daiteke?**

Printzipioz, euskal hizkuntzan jatorria dute abizenei ari gara.

1998 urtean Espainiako Justizia Ministerioa, Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila eta Euskaltzaindiaren artean “Euskal Deituren Izendegia” onartu eta argitaratu zen. Izatez, euskal abizen gehienak batzen dituen zerrenda bat da, erdal eta euskal forma agertzen dituen. Horretan balego aldatu nahi duzun abizena erraz baino errazago duzu, ia automatikoki egiten delako.

Esandako “Euskal Deituren Izendegia” horretan ez balego, zure abizenari buruzko Euskaltzaindiaren txosten bat behar da.

(<http://www.euskaltzaindia.net/eoda/index.asp?hizkuntza=eu&onoma=deiturak>)

### **Non aldatu eta zer eraman**

Horrelako abizen aldaketa Bake Epaitegiak gauzatzen ditu. Zorionez, erakunde honek gure udalerrian du egoitza. Hona hemen eraman behar dituzun dokumentuak:

- Errolda agiria. Udal bulegoetan eta unean bertan egingo dizute.
- Jaiotza-agiria.
- NAaren fotokopia bat.
- Familia liburua. Soilik ezkondua bazara edo seme-alabarik baduzu.

Arestian esan bezala, zure abizena “Euskal Deituren Izendegian” ez balego, zure abizenari buruzko

- Euskaltzaindiaren txosten bat beharko litzateke. Zuri gauzak erraztearren, guk geuk bideratuko genizuke izapide hau.

Gauzak aurreratzen joan nahi baduzu, kontsulta ezazu zure [abizenaren euskal bertsioa](#) zein den. Animatzen bazara, bidali **e-posta** bat zure abizenarekin eta esango dizugu “Euskal Deituren Izendegian” dagoenen edo ez, hau da, zer behar duzun aldatzeko.

### **Abizenak aldatzearen ondorioak**

Amaitzeko, kontuan izan abizenetan egin nahi dituzun aldaketek ez dutela inolako ondoriorik testamentu, eskritura eta horrelakoetan: ez dituzu aldatu behar.

Familietan, banaka (amarena bai baina alabarena ez eta antzekoak) zein elkarrekin (familia osokoak) alda daitezke abizenak.

### *8.10. Ordenagailua euskaraz*

Gipuzkoako Foru Aldundiak euskarazko softwarea eskuratzeko dirulaguntzak eraman dizkie. Dirulaguntza hauek jasotzeko ondoko baldintza hauek bete behar dituzte:

- Establezimendua Gipuzkoako lurralde historikoan izatea.
- Softwarea euskara hutsean izatea.
- Programa horren baliokidea den euskarazko software askea ez existitzea.

Dirulaguntza hauek Batzorde batek aztertuko du. Gehienez, %60koa izango da.

## BIBLIOGRAFIA

Udal batzuek prestatutako material batzuk.

- *UEMA* (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea)
- *Kontseilua*
- *Getxoko Udala*.
- *Antzuolako Udala*.

Erakunde hauek guztiek egindako materiala erabili da.

Bestalde, ostalaritza hiztegia egiteko ondoko hauek izan ditugu oinarri:

Anonimoa (1864). *Escualdun cocinera*. Baiona.

Errekondo, J. eta Garcia de Eulate (1997). *Euskal Herriko sagardoa*. Usurbil: Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak.

Etxeberria, H. (1996). *Sukaliztegi partikularra*. Donostia: Orain.

Etxeberria, H., Bereziartua, J. eta Irizar L. (1998). *Erabateko sukaldea*: Donostia: Tartalo.

Etxeberria, H. eta Jorge D. (2004). *Sukaldean. 1001 errezeta etxean egiteko*. Donostia: Lur.

Garaizabal, M. (2003). *Euskal Herriko ardoak*. Bilbao: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.

Lopez, E. (1889). *Cocinan icasteco liburua*. Tolosa: Lopez.

Sarasola, I. (1998). *Euskara batuaren ajeak*. Zarautz: Alberdania.

- Euskalterm datu-basea
- Orotariko Euskal Hiztegia
- Elhuyar eta 3000 hiztegiak
- [www.gastronomiavasca.net](http://www.gastronomiavasca.net) (Ostalaritza-Hiztegi bat dauka)
- [www.sukaldeon.org](http://www.sukaldeon.org) (Ostalaritza-Hiztegi bat dauka)
- [www.bagera.com](http://www.bagera.com) (Ostalaritza-Hiztegi bat dauka)
- [http://www.cebanc.com/castellano/publicaciones/menu\\_hiztegia](http://www.cebanc.com/castellano/publicaciones/menu_hiztegia) (Ostalaritza-Hiztegi bat dauka)
- [www.uema.org](http://www.uema.org)
- Berria egunkarian argitaratzen diren errezetak (terminoak ikusi).

## ERANSKINA

Oiartzungo Merkataritzan euskararen erabilera sustatzeko erabakia

---

*Establezimenduaren izena*

*Zenb.*

Honako hau adierazten du:

*a) Kanpoko irudi komertziala*

- Errotulua, taldea edo ibilgailu komertzialen errotulazioa euskaraz edo elebietan ipintzeko eta berritzeko asmoa duela*

*b) Ageriko txartel eta idazki komertzialak*

- Establezimenduak jendaurrean ipintzen dituen idazki eta iragarki komertzialak euskaraz edo elebietara ipintzeko konpromisoa hartzen duela.*

*c) Itzulpenak*

- Udalak, urte osoan zehar, itzuli eta entregatzen dizkion merkataritzako idazki eta kartel guztiak jendaurrean ipintzeko konpromisoa hartzen duela.*

*d) Dirulaguntzak Oiartzungo establezimenduetako langileak euskalduntzeko*

- Oiartzungo Udalak, euskara ikastera doazen merkatariei, euren ordezkapena egiteko pertsonaren bat kontratatzen badute, eskaintzen dizkien dirulaguntzen berri jasotzeko interesa duela.*

Establezimenduak erabakiaren jarraipenerako Euskara Zerbitzuaren ikuskapena onartzen du eta azken honek, berriz, egindako eskaintzak bideratzeko, aholkularitza tekniko jarraitua eta itzulpen zerbitzua emateko konpromisoa hartzen du.

Oiartzun, 2004ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_\_a

Establezimenduaren izenpea